



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

GARIZUMA 2021

KATEKESIA ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

Elizak ADISKIDE ETA SENIDE / COMUNIDADES ACOGEDORAS goiburua, edo hobeto esanda, egitekoa proposatu deusku 2021ko Garizuma aldirako, Frantzisko aita santuak Fratelli tutti entziklikan egiten dauan deiari erantzunez. Deia danontzat da, baita familiok, etxean, entzun eta erantzun daigun. Hauxe da aurkezten deusuegun proposamena.

Gure eguneroko bizitzan, txiki eta nagusiok, familian, senidetasuna garatu daigun Jesusek egiten deuskun deia eguneratzean datza. 'Hartu' berbearen esangureaz jabetuz; eguneroko bizitzako ze egoeratan garan harreragile eta ze egoeratan ez ikusiz; egoera horreetan zelan sentitzen garan adieraziz eta aurrera egiteko, harrera gauzatzeko, Jesusen antzera harreragile izateko zer egingo dogun aitatzuz.

Horretarako, hainbat aukera aurkeztuko dogu familian handi eta txikiek batera egiteko Garizuma aldian (otsailaren 17tik -Hausterre eguna-, martxoaren 28ra arte -Erramu-domekea). Era batekoak zein bestekoak izan proposamenak, amaieran otoitz egin daizuela eskatu gura deusuegu.

1 FAMILIAN IKUSTEN DUGU

✧✧ "SAMARIAR ONA"

- Familian ikusi "Samariar onaren" parabola (Lk 10, 25-37) kontatzen duen bideoa.
- Haurrek entzun dute pasartea katekesian, beraz, azal dezatela parabola honetan gertatzen dena.



**BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

Ondoren, familian elkarrizketan jardungo dugu:

- Zer sentitu dugu bideoa ikustean?
- Zeintzuk dira zauritutako gizona bidean botata aurkitu duten hiru pertsonen jarrerak?
- Gogora ditzagun gure bizitzan, familiaren bizitzan, antzeko egoerak noiz aurki ditzakegun. Gaur egun, gure inguruan, nor ote da bidean zaurituta dagoena?:



- Gaur egun, gure inguruan, nor ote da bidean zaurituta dagoena?
- Zer egiten dugu kasu horietan?
- Beste aldera begiratzen dugu?
- Aitzakiak jartzen ditugu ez laguntzeko?
- Behar izanez gero, konprometitzen gara?

2

IKERKETA: HARTU?



'Hartu' hitzak zer esan nahi duen bilatuko dugu.

- Lehenengo, senide eta adiskideei galdetuko diegu.
- Ondoren, interneten begiratuko dugu, edo etxean dugun hiztegiaren batean.



**RAE-N BILATZEKO,
KLIKATU IRUDIAN**


'Hartu' hitzaren hamaika adiera aurkituko dugu. Horien inguruan hitz egingo dugu. Jakin duguna, guretzat berri gertatu den esanahia idatziz jasoko dugu.

Ondoren, elkarrizketan jardungo dugu, ondorengo hauen edo antzeko kontuen inguruan:

- Nire logela, gure sukaldea, gure egongela..., gure etxea, gure familia: norbaitentzat aterpetxe izango balitz babesleku bihurtu behar izango bagenu... nolakoa izango litzateke?
- Nik, gutako bakoitzak, behar duten pertsonak hartu, onartu, babestu behar izango bagenu... zer egin beharko genuke?

Babesten eta gordetzen duen areto - aterpetxe - babesleku bihurtutako etxea marraztuko dugu elkarrekin, nola egingo dugun azalduz.

Argazkia egin eta adiskide guztiei eta katekesiko taldeari bidaliko diegu.



3

JOLASA: HAINBAT. ZURE ISTORIA BATERA JARRI

HAINBAT, jolas dibertigarria da; irudimena garatu eta istorioak asma ditzakezu, familian azaltzeko.

Dado eta kartez baliatuz, hainbat gizarte errealidade agertzeraz emoteko eta partaideen alderdi espiritualak sendotzeko aukera emondo deuskuen kontaktak eratu daitezke.



Oraingoan, I. eranskinen kartak erabiliko ditugu. Dadoei dagokienez, aukera bi daukabez:

- Etxean dozuen dadoa hartu eta II. eranskinen koadroan jasoten diran irudiak egokitu.
- III. eranskinen jasoten diran QR eta jarraibideen bitartez online jokoan sartu.

Partidaren garapena

I. Eranskinen "jarraitu istorioa" karta bat aukeratu eta, ondoren, dadoak bota. Dadoetan atara diran 8 ikonoak erabili kartan agertzen dan "egoera" osatzeko. Nahi dozun ikonotik hasi, beharbada deigarrien gertatu jatzunetik eta ondoren... askatu zure sormena! Dadoetan atara jatzuzan irudiak konbinatu eta zeure kontaketa osatzea baino ez jatzu geratzen.

Etxeko dadoak erabili ezker, zortzi aldiz bota beharko dozue dadoa, istorioa osatzeko ezinbesteko diran irudiak lortzeko. Mekanismoa erraza da: botaldi baxotxean zenbaki bat atarako jatzue; inguratu zenbaki horri dagokion irudia eta gauza bera egin zortzi irudiak lortu arte (ikus II. eranskina).

AUSARTU ETA BATERA JARRI ZUEN ISTORIOAK!

4

OTOITZA

Familiako saio honi amaiera emoteko, otoitz egingo dogu. Horretarako, bilatu leku eroso eta etxean, isiltasuna egiten saiatu... eta danok, txiki eta handi, beheko estekako otoitza egingo dogu. Web orrialde honetatik hartu dogu: rezandovoy.org eta haurrentzako bertsinoa da.



**WEBGURENA SARTZEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

☆☆ I. ERANSKINA, KARTAK JOLASTEKO

JARRAITU ZURE
ISTORIA

Gaur Brasilgo ikaskide berri bat etorri da. Ez daki ondo gure hizkuntzan hitz egiten, baina beti dago irribarretsu. Ikusten dudanean...

Hoy ha venido a clase una nueva compañera de Brasil y, aunque no sabe hablar bien nuestro idioma, siempre está sonriendo.

Cuando la veo...

CONTINÚA
TU HISTORIA

JARRAITU ZURE
ISTORIA

Beheko bizilaguna etxera etorri zait gaur, pastel bat egiteko irin pixka bat eskatzera.

Ez genuen ezagutzen, baina...

Mi vecino de abajo hoy ha venido a casa a pedirme un poco de harina para hacer un pastel.

No le conocíamos, pero...

CONTINÚA
TU HISTORIA

JARRAITU ZURE
ISTORIA

Bart, nire semeak galdetu zidan ea gelakiderik etor zitekeen etxera etxeke lanak egitera, Internetik ez duelako.

Eta nik esan nion...

Anoche me preguntó mi hijo si podía venir una compañera de clase a casa a hacer los deberes porque no tiene internet.

Y yo le dije...

CONTINÚA
TU HISTORIA

JARRAITU ZURE
ISTORIA

Rachid naiz, Marokon jaio nintzen duela 17 urte, eta 12urterekin Espainiara heldu nintzen, Melillara, patera batean. Nire ametsa da...

Soy Rachid nací en Marruecos hace 17 años y con 12 años llegué al sur de España, a Melilla, vine en patera. Sueño...

CONTINÚA
TU HISTORIA

✧✧ II. ERANSKINA DADOEN IRUDIAKA

	TIRADA 1	TIRADA 2	TIRADA 3	TIRADA 4	TIRADA 5	TIRADA 6	TIRADA 7	TIRADA 8
1								
2								
3								
4								
5								
6								

✧✧ III. ERANSKINA

HAINBAT jolas dibertigarriaren bertsino digitala eskuratzeko, www.hainbatjolasa.org webean sartu.

“Jolasten hasi” botoian sakatu. Ezinbestekoa da jolasten hasi baino lehen erregistratzea. Erraza da, lehenengo aldia bada, “erregistratu” dalakoan klik egin eta izena, helbide elektronikoa eta pasahitza sartu. Pribatutasun-politika onartu eta gogoratu zure pasahitza aurrerantzean ere sartzen zaranerako.

Sartzen zanean, dadoak bota eta irudimena martxan jarri

WEBGUNERA SARTZEKO,
ESKANEATU IRUDIA

